

## Muzkiko garbategia



Irakurketa Erraza

Muzkiko garbategia

erdi erorita zegoen

San Miguel ermitako harriekin egin zen.

Harri hauetako batzuetan

gurutze markatuak ikus ditzakezu.

Garbategiko iturria bi aldiz konpondu zen.

Joseph de Cortejarena eta Francisco Balerdi harginek

bigarren konponketa egin zuten.

**Hargin** bat eraikinak eta beste egitura batzuk egiteko

harria lantzen duen pertsona bat da.

Hau Muzkiko garbategia da:



**Zertarako balio zuen garbategiak?**

Denbora luzez garbitoki hau

herriko iturririk garrantzitsuena izan zen.

Garbitokiak jendeak edateko

ura hartzeko balio zuen.

Haraino iristea ez zen oso eroso

garbitokia aldapa handian zegoelako

eta jendea kargatuta joaten zelakoa.

Garbitegi horrek

arropa garbitzeko ere balio zuen.

Iturritik ateratzen zen ura

harri leun batzuetara erortzen zen

eta emakumeek arropa han garbitzen zuten.

Garbitzeko arropa asko zutenean

Haitzaren Putzura joaten ziren

putzuak askoz ur gehiago baitzuen.

Euria egiten zuenean

ezin zuten arropa garbitu

garbitegia aire zabalean zegoelako.

Horregatik 1945. urtean

Jaitz herriko igeltsero bati

garbitegirako teilatu bat eraikitzeko eskatu zioten.



"© European Easy-to-Read Logoa: Inclusion Europe. Informazio gehiago:  
[www.inclusion-europe.org/etr](http://www.inclusion-europe.org/etr).